

Etxagerrateak sorturiko “Eguna”, lehen euskal egunkaria

(“Eguna”, created by the Civil War, first newspaper in the
Basque Language)

Altzibar Aretxabaleta, Xabier

Euskal Herriko Unib. Gizarte eta Komunikazio-Zientzien Fak.

644 postakutxa.

48080 Bilbao

BIBLID [1137-4454 (1997), 14; 47-56]

Artikulu honek Eguna, euskarazko lehen egunkari gerratean sorturikoaren inguruan beste ikerlari batzuek (Agirreazkuenaga, Díaz Noci, Zubikarai) aztertutako alderdi batzuk zehazten ditu, adibidez bere sorrera, Euzkadiren euskal atalaren garapen bezala, edo gerrako egunkari bezala emaniko informazioa, iritzi sailak eta idazleak, eta propaganda. Askoz gutxiago aztertutako beste alderdi batzuk ere, hizkuntza eta literaturarekin zerikusia dutenak, jorratzen ditu: garbizaletasuna eta ulergarritasuna, Euzkadiren tradizioa eta euskara idatziaren batasun falta. Gerrako egunkari honetan euskal literaturak izandako garrantzi nabarmena (olerkiak, Loretxo eleberria) erakusten du, hori Errepublikara garaiko giroaren jarraipen bezala azalduz.

Giltz-Hitzak: Eguna. Euskal egunkaria. Kazetaritza.

Este artículo especifica aspectos ya tratados por otros (Zubikarai, Agirreazkuenaga, Díaz Noci) de Eguna, primer diario en euskara, nacido en la guerra civil. Por ej. su nacimiento del seno del diario Euzkadi, como ampliación de las páginas en euskara, o su caracterización como diario (normalizado, eso sí) de guerra en cuanto a información, columnas de opinión y propaganda. Aborda otros problemas y aspectos, menos estudiados, relacionados con la lengua y la literatura: el purismo lingüístico y la necesidad de asegurar la inteligibilidad, o la tradición del diario-madre Euzkadi y la falta de unidad de la lengua escrita. El artículo pone de relieve la importancia de la literatura vasca (poesías, la novela Loretxo etc.) en un periódico de guerra, buscando su explicación en el ambiente literario de la época de la República.

Palabras Clave: Eguna. Periódico vasco. Periodismo.

Cette article examine quelques aspects déjà étudiés par autres (Agirreazkuenaga, Díaz Noci, Zubikarai) de Eguna, le premier quotidien en basque, né avec la guerre. Par exemple, son naissance au sein du quotidien Euzkadi, comme agrandissement des pages en basque, ou son caractérisation comme quotidien normalisé de guerre en information, opinion et propagande. Il pose autres questions, moins étudiés, relatifs à la langue et la littérature: purisme et communication, tradition de liberté dialectale de Euzkadi et l'absence d'unité de la langue basque écrite. L'article souligne l'importance de la littérature basque dans ce quotidien de guerre, en cherchant de l'expliquer par l'ambiance littéraire de l'époque de la République.

Mots Clés: Eguna. Journalisme basque. Journalisme.

Euskarazko egunkaria, aspaldiko ametsa, Lizardik-eta Errepublika aurretxoan egin asmo izan zutena, 1936-37ko etxagerratean sortu zen mundura baina urte erdi baino ez zuen iraun. Gerra ostean eguneroko horren berririk ere ia ez genuen izan, harik eta duela bost urte berrargitaratu zen arte faksimilez –nahiz letra txikiegian, tamalez–: *Eguna* (Eusko Jaurilaritza, Kultura eta Turismo Sailak, 1990).

Artikulu honetan lehenbizi egunkariaren sorrera azalduko dut. Ondoren haren kazetagin-tzaren alderdi nagusi batzuez ihardungo dut, hala nola politika editoriala, idazlariak, informa-zio-iturriak, informazio sailak eta gerratearen kontatera, iritzi sailak eta idazleak, eta izenburu eta argazkien garrantzia. Azkenik, egunkariko euskara eta literaturlanez.

1. EUZKADIREN ERDITZEA

Eguna Bilbon sortu zen 1937ko Urte Berri egunean, Eusko Jaurilaritzaren aginduz. Guda hasita gero beraz, gerratokiak Elgeta, Eibar eta Legutiano aldean zeudela. Altxatuak Nafarroaz jabetuak ziren, noski, eta Gipuzkoa eta Arabako parte handi batez, lurralde horie-tako egunkari eta aldizkariak eta beraz bertako euskarazko prentsa desagertarazi zutela. Eta Bilbo jausi hurren zela ateratzen azken zenbakia, 139.a, ekainaren 13an, igandean. Urte erdi eskas iraun zuen, bada.

Eguna Molaren erasoaldian jaio eta bizi izan zen, “faxistak” deituak (erreketek, militar, falanjista e.a.) nagusi zirela soldadu eta armaz, itsaso nahiz airean. Bere nortasun, askatasun eta erakundeei eutsi eta eutsi, desagertu nahi ez zuen herri baten adorea erakusten du, horrek sortu baitzuen *Eguna*.

Hona hemen egunkariari buruzko argitasun nagusi batzuk: batzuetan bi, beste batzue-tan hiru orri zeuzkan, egunkari guztientzat neurri bera. Astelehenetan ez zen agertzen. Jabegoa EAJrena zen, JEL ikurritza zeramala bere mantxetan. Idazkola lehenengo Correo kaleko 17an, 2.ean; gero Gran Viako 43an (Indatzu Goikoa), gorengoan. Inprimategia, lehe-nengoan, *Euzkadi* egunkariaren lantegietan; geroago, *La Gaceta del Norte*-renean, Henao kaleko 8an. Dirua EAJk jarri bide zuen. Publizitatea debekaturik zeukan eta ez zuen diru iturri berezkorik. Geroago harpidetza kanpainari ekin behar izan zion. Salneurria 15 zentimo zen, baina kalean gutxi banatzen zen, gehiena gerraleku eta gudari taldeetan, dohainik. Babesle eta begiralea Euzko Jaurilaritza zen, hor EAJ nagusi baitzen. Ale kopurua: lehenen-goetan 8.000 mila, gero 10.000 inguru, nahiz otsailaren 2an 18.000ra heldu direla eta 12an aurreko egunean 20.000 ateratzen zirela adierazi.

Gudari euskaldunei indar emateko sortu zen *Eguna*, nahiz ez zen soilik gudarientzat, noski. Arerioen aurkako gerran Euzkadi eta bere erakunde, euskara eta kristautasunaren alde gudukatzeko barne-indarra eman, berriak eskaini, Jaurilaritzaren mezua eta EAJ alderdiaren abotsa entzunarazi: hori guztia eta gehiago egin nahi izan zuen *Eguna*-k.

Euskal Herri, euskara eta euskal kulturarentzat egoera larrienean sortu zen: gerraren bidez asaldatuek Hego Euskal Herrian gehiengoak aukeratutako bidea, abertzaletasuna, euskara eta euskal kultura desagertaraztea eta suntsitzea bilatzen zuten, jokabide gaitzesga-rrienak erabiliz: apaiz abertzale eta euskalzaleak hilez, euskaraz hitz egitea debekatu, e.a. Gerratean gipuzkoar asko etxeak utzita Bizkaian babestu ziren eta ondorioz Bilbon inoiz baino euskara gehiago entzuten omen zen. Euskal idazle gehienak abertzaleak ziren, eta abertzaleek bultzatutako kazetetan idazten zutenak (*Euzkadi*, *Gipuzkoarra*, *Euzko*, *Gudari*...). Kinka estu honetan idazleak engaiatu ziren: adib. argazki eta guzti agertu ziren *Egunan* “Gure idazliak” noizbehinkako sailtxoan (Muniategi-*tar* Sabin olerkaria, Ruiz de Azua

"Ogoñope", Abando "Erletxue" bilbotarra, e.a.). Euzko Jaurilaritzaren kontrolpeko lurraldeetan, beraz, euskararen aldeko indarrak batuz zihoazen.

Bazen euskal egunkariaren auspogile bat, aspalditik haize batzen ziharduena, Zubikaraiak dioenez: Lauaxeta, *Euzkadiren* euskal atalaren arduraduna eta Euzko-Gudarostean kargu edo ardura handiko lana zerabilena eskuartean. Aukera 1936.en urte amaierako egunkariaren paper-murritzeta aginduak eskaini zuen: aurrerantzean egunkari guztiak neurri berdinekoak (4 orr.) izan behar zuten, eta *Euzkadiren* euskal atala murritzuta gelditzen zenez, euskarazko lan gehienak EAJ-ren agerkari ofiziala zen horretan atera beharrean beste egunkari batean, euskara hutsezko egunerokoan aterako ziren. Nolanahi ere, *Eguna* EAJren eta Euzko Jaurilaritzaren erabakiz sortu zen, haien babespean zegoela.

Hola, ustekabeen eta gerra egoerak bortxatuta, euskalzaleek aspaldi amestutako haurra sortzen zen: euskara hutsezko egunerokoa. *Egunaren* I. zenbakian: "Gure ametsa bete degu" esaten da. Ordura arte, euskara hutsezko kazeta abertzale batzuk egon ziren (*Euzko-Deya*, *Euzko*, 1932an sortua eta Euzko Gaztediari lotua, eta batez ere egunerokoa egiteko proiektu sendo bat, 1929 inguruan Lizardi, "Mendi lauta" eta abarrek bultzatua).

Eguna Euzkadiren euskal atalaren garapena zen, gerrak behartua. *Euzkadiren*ak ziren azpiegitura (irarkola, dirua), idazlariak (erredaktoreak), sail edo atal batzuk, eta informazio-iturri nagusia ere *Euzkadi* egunkaria bera zen. Egunkaria ateratzeko ardura goitik behera ezarri zuen alderdiak: M. Ziarsolo "Abeletxe", *Euzko* aldizkariaren zuzendari ohia eman zioten zuzendari kargua, eta A. Zubikarai ondarrutar, *Euzkadiko* euskal ataleko laguntzaileari zuzendariordeztza, eta beste hiru idazlari ere hautatu eta horiekin egunkaria ateratzeko agindu zieten.

Egunan bildu ziren *Euzkadik* gerra hasi baino lehen euskal sail eta ataletan zeuzkan artikulua-mota asko, adibidez herrietako albisteak edo euskal kulturakoak. Izan ere, *Euzkadiren* "euskal orria" euskarazko eguneroko txiki baten antza hartzen zihoan. Gerrako berriak ematen zituzten sail batzuk ere *Euzkadik* zetozen edo hor zuten eredua. Adibidez, *Eguna*-ko "Gayak", T. Agirre "Barrenso"ren idatzia, "Guda-oñetako izparrak" Ruiz de Azua "Ogoñope" irati-esateriak idatzia, edo "Atzoko eguna euzko zaingoetan" delakoak *Euzkadi* ko sail oso antzekoetatik sortuak ziren.

Egunara bildutako beste sail eta idazle batzuk Gipuzkoako aldizkarietatik zetozen, adib. Basarri eta bere "Nere bordatxotik bildutako sortatxoak". *Argiatik* zetozen Tx. Arruti "Mendi Lautu", Ander Arzelus, F. Belaustegigoitia e.a. Bizkai, Gipuzkoa eta Arabako aldizkarietan idazten zuten beste idazle batzuk ere bildu ziren egunkari berrira: Jose Ituarte "Artibai" ondarrutarra (M. Ziarsolo "Abeletxe"rekin batera *Euzkoren* zuzendaritzan ibilia), Zirilo Arzubiaga (Jaungoiko-Zale apaiz elkartekoa, *Ekin* en idazten zuena), I. Enbeita "Uribitarte'tar Ibon" Muxikakoa (*Euzkadi*, *Argia*, *Euzkerea* n), Urrestarazu "Utarra" (*Euzkerea* eta *Arabarra* n) e.a.

Euzkadi zen ere *Egunarentzat* eredua alderdi desberdin askotatik: diseinu aldetik (6 zerrenda), izenburuetan (izenburu nagusia zerrenda guztietara hedatua, orobat azpiizenburuak elkarren jarraian), nahiz iritzi eta informazio sail nagusi batzuen aldetik, esan dugunez, edo euskara ereduan.

2. GERRA GARAIKO EGUNKARIA: INFORMAZIOA, IRITZIA ETA PROPAGANDA

Editorial politikari dagokionez, idazlariak irizpide berdintsukoak zirela eta askatasunez jokatu zutela dio Zubikaraiak, *goitik* agindurik hartu gabe, lau irizpide nagusiri jarraituz: "Abertzaletasun zintzo eta zabal baten jokatu nahi izan gendun. Honetan ez lagunduz inork

zalantzan ipini. Kristau sinismen eta pentsabide zabal bat zaindu eta aldeztu gendun bestetik (...). Beste aldetik arrantzaile eta baserritarren aldeko jokabidea hartu gendun, nahi ta arrantzaleak zer-esanik emon ez egoera berezi haretan. Eta Eusko Jaurlaritzaren begirapena gain gaiñetik zaindutea pentsatu gendun hasieratik eta ez giñan hortik aldendu" (Zubikarai: 1990:39). Agirreazkuenaga eta Díaz Noci ikerlariek ere azpimarkatu dituzte puntuok¹.

Egunakoek irizpide hauek elkarrekin lotzen dituzte oso estu (abertzaletasuna eta katolikotasuna, hau eta euskara), bereizirik ez baitute haien zentzurik. "Abertzaletasun zabal" batean jokatzeko asmoa gorabehera, *Eguna* joera jeltzale nabarmeneko da. S. Aranaren esana "Gu, Euzkadirentzat eta Euzkadi Jaungoikoarentzat" slogan bezala erabiltzen dute.

Baserritarren arazoak ez ezik, beste gizarte maila batzuenak ere ukitzen ditu: ugazabangileen artekoak, familia lansaria, ikastolak, hezkuntza, emakumearen zereginak (lk. iritzi sail eta artikuluen atalean). Euzko Jaurlaritzaren aldeko politikari dagokionez, haren aldeko propaganda nabarmenik behintzat ez dirudi egin zuenik.

Euskararen alde egitea ere xede nagusietarik bat zen, esan gabe doa, Zubikarai aipatu ez arren. Euskarari buruzko ideologia zabaldu nahi zuten, adibidez honelako sloganen bidez: "Euzkera gure ele bakarra: Jainkoak nai du euzkera jasotzea". "Zure aberri elia maite ezpadozu, zeure aberria bez, eztozu maite". Beraz, euskararen alde egitea eta euskaldunak irakurtzen zaletzeko helburu zintzoa ukatu gabe, ideologia jakin bat zabaltzeko ere tresna zenez, egunkariari eustea garrantzitsua zen *Egunakoentzat*. Horregatik "Euzkeldun Irakurle Batza" sortu eta *Egunaren* harpidetun bila kanpaina egin zuten sloganetan egunkaria euskararekin, erlijio, nekazari eta gizarte arazoen konponbidearekin lotuz².

Aipatu xedeen alde informazio eta iritzi sail finko nahiz artikulua eta propaganda bidez (gera garaiko egunkari gisa) egiten zuten, eta azken honen bidez informazio eta iritzi artikuluen bidez baino gehiago, batez ere azken alderantz. Ezen gudaren bilakaera eta *Egunarena* elkarren parean baitoaz eta egunkarian ere bi aldikada bereiz baitaitezke: hasieran egoera bareagoa zenez, kolaborazio ugari argitaratu ziren; Durangoko bonbaketa ondoren eta batez ere apiriletik aurrera idazlariek ateratzen zuten ia osorik eta propaganda gehitu zen, egoera larriaren adierazgarri, Agirreazkuenagak ohartarazi bezala, azkenean informazioarekin nahasteraino (lk. geroago).

Eguna egunero ateratzeko ardura idazlari gutxi batzuen gain egon zen: A. Zubikarai ondarrutarra –zuzendari-ordea–, E. Erkiaga lekeitiarra, J. M. Arizmendiarieta Barinagakoa (Markinako auzoa) eta A. Mendizabal mutrikuarra. Geroztik lehen biak euskal idazle ezagunak izatera iritsi ziren, eta, hirugarrena, Arrasateko kooperatiben mugimenduaren sortzaile nagusia. Batez ere lehen biek idazten zuten gehiena. Zuzendaria, "Abeletxe", noizean behin baino ez omen zen agertzen. Idazlariok bulego-lana egiten zuten: *Euzkadira* iristen ziren tele-tipa eta egunkarietatik hartu eta itzuli, laburtu edo moldatu. Anjel Aurrekoetxea takigrafoak hartzen zituen irratiko berriak. Lan ikaragarria izan zen egunero-egunero orriak betetzea -

1. Agirreazkuenaga, "Eguna: Euskararen egunerokotzea komunikabideetan", *Egunaren* birargitalpenean, "Diskurtso ideologikoaren guneak", 22-28. Diez Noci, J., *Euskal prentsaren sorrera eta garapena (1834-1939)*, Cuadernos de Sección-Medios de Comunicación, 5, Eusko Ikaskuntza, 1995, III. parte, bereziki 255-266. Nire artikulua honetako puntu gehienak aztertuak daude, eta zabalago, bi ikerlariaren lanetan.

2. "Eguna" euzkel egunkari abertzalea uzkuertz aldezele zintzoa da. Izango ote da euzkotar kistar zintzorik laguntza ukatuko dionik?". "Eguna" euzkel egunkari abertzale bidez, Euzkadi'ko nekazari eta arrantzaleak abertzaleetako ditugu. Abertzalea zerala diozun orrek ez ote diguzu lagunduko ekiten, diogun lan aberkoi onetan?". "Eguna" euzkel egunkari abertzalea, gizarte zuzentza aldezele izango da; langile eskubide aldezele zuzentza bidez. Langile abertzale orrek zez ote diguzu zure laguntza emango?" (*Eguna*, 119, V-27).

gogora publizitatea debekatua zutela- eta bizpalauren artean ateratzea, hasi goizeko 10etatik eta goizaldeko orduetararte lanean ihardunez. Gero bazen laguntzaile mordo bat, kaletik edo etxetik idazten zutenak, inoiz gerralekutik ere bai, eta atzeritik.

Informazio iturriei dagokienez, *Euzkadi* egunerokoa zen iturri nagusia: bai Euskal Herriko eta bai herrietako berrietarako, *Eguna* haren urgazle sareaz baliatzen baitzen. Hartaz baliatzen ziren gudako albisteak emateko, baita Espainia eta atzerriko informazioa eskaintzeko, hark erderaz zekarrenetik hartuz.

"Baiña alegintzen giñan arek batzen ez zitun albisteak sartzen. Askotan ""zentsurak"" *Euzkadi*"ri galerazo edo illundutako barriak, guk euskeratuta agertzen genduzan oztopo gabe (...) Beste aldetik Leizaola berberak agintarien barruko mezularia gureganatzen ba ekian. Ordez, nahi izanarren, ez gendun lortu giroak eskatzen eban lez, gudalekuetako kronikalaririk. Alaz eta azken bi illebetetan utsune ori zerbait itxuratu gendun" (Zubikarai: 1990: 38-39).

"Zabaltasun apur bat emon nairik, Bilboko egunkarietako albiste eta irizpiderik zabalekin laburtuta ateraten genduzan, orretarako sail berezi bat erabiliaz" (Zubikarai, id.). Atzerrian *Egunak* bazuen berriemale edo urgazle bat, harako "Zetargi", "Eguna Parisen" saila idazten zuena, Bordele eta Parisetik berriak bidaltzen eta *Eguna* ordezkatzen zuena.

Berrien artean gudako albisteak dira garrantzitsuenak, noski (1. eta 4. or.), gero eta gehiago. Egunkariak bi sail zituen arlo honetan: "Españarr guda-izparrak" eta "Euzko guda-oiñetan". Badira gudako parte ofizialak eta azken ordukoak ere ("Azkenengo izparrak"). Ondoren, Euzko Jaurilaritzaren informazioa: "Atzoko eguna Euzko-Zaingoetan" (barruko boletinen bidez). Gerrako berriak, noski, eta Euzko Jaurilaritzaren berri ofizialak dira nagusi. Albiste politikoek ere bere garrantzi dute. Bazen beste sail finko bat, aipatu duguna: "Bilbao'ko izparringiak diñuena". Bilboko Epaitegiko berriak ere interesgarriak dira: guda egoerakoak baitira epai horiek (etsaiak, salatariak...). Noizean behian "Kirolak" saila argitaratzen da, hegazkin bat erosteko helburu propagandistikoarekin, Bilbon ostikolaritzarako zale-tasun handia baitzegoen.

Herrietako berriei ("Euzkadi errijetako izparrak", 3. or.) garrantzi handia ematen zaie eta hau euskal kazetaritzaren ezaugarri bat da. *Euzkadiko* "Errijetatik" saila zen honen eredua, eta joera bera erakusten dute, esaterako, *Argia* edo Iparraldean *Eskualdunak*. *Egunan* Bizkaiko berri gehiago agertzen zen, normala zenez ("Aixerixa"k Bilbotik, Errose Bustintza "Mañariko"k Mañaritik, "Txindor-Kumia" delako Enbeitatarrak Muxikatik...).

Atzerriko berriak garrantzitsuak dira ("Atzerriko izparrak", 2. edo 3. or.), baita batzuetan azken orrialdean, gerrarekin zerikusia zutenak. Euzko Jaurilaritzari Ingalaterra, Frantzia eta Sobiet Batasunaren laguntza interesatzen zitzaion, hemengo berriekin propaganda egitea eta baita hango berri batzuk –are Alemania eta Italiakoak– hemengoentzat onuragarriak izatea. *Egunak* atzerriko egunkarietako berriak ere jasotzen zituen. "Ez sartzea" delako politika eta Bilboko portuaren blokeoa izan ziren kezka nagusiak. Gernikako bonbaketaren ondoren mundu guztia Euskadira begira zegoelakoan zegoen Euzko Jaurlaritza edo behintzat itxura egin nahi zuen³. Noizbehinka agertzen zen "Eguna atzerriko" saila, "Zetargi"k betea. Espainiako berriak, oster, ("Españarr gudako izparrak eta") batzuetan badirudi atzerrikoak bezain garrantzitsuak ez direla.

3. "Euzkadira begira mundu guztia" (V-14). "Euzkadi galtzen bada, guri esku luzatzeko nagi dauden oiek ere ez dira luzaroko" (Basarri, "Kanpora begira", 1. orr. V-26).. "Gernikako suagaketak, Bilbo inguratzeak, euzkotar umeak, bi laterrien gizatasuna bide, Ingalaterra ta Frantzeratzeak, erri guztiak euzkal erriaren etorkizunari begira lotu du ludi osoa" (sarrera-esaldia, "Euzkal-erriaren jokabidea", lehen orr., V-16).

Iparraldeko *Eskualduna* kazetaren politikagatik kezkatua zegoen *Eguna*, hasieratik salatzuz zuzendari eta atzean zeuden politikariak (Ybarnegarai eta honen eskumakila l'Espee), altxatuak "xuri" eta abertzaleak "gorri"tzat jotzen zituelako⁴.

Gerratearen kronika zuzen-zuzenekoa egiten du *Egunak*. Alderdi batetik ikusita kontatua, eta alderdi bata defendatzeko asmoz, noski. Norberaren garaipenak eta arerioaren atzerakadak azpimarratzen dira (arerioek jo zutela baina ez zutela lortu e.a.), baina argi uler daiteke ekimena etsaien eskutik datorrela. Etsaien joaldia gerratikotietan, bonbaketat atzeko aldean: hauen artean eragin handikoak izan ziren Durango eta bereziki Gernikakoa. Durangoko bonbaketaren irudi hunkigarriak agertu ziren egunkarian, argazkiekin: kalea apurtuta; apaiz eta monjak lurrean zerraldo hilda... Eta izenburuetan: "Atzo goizean / Paxisten egazkiñak Tabira zarraren gañean / Durango'ko Miren Deunaren elizara bomba ugari jaurti zituen.— Kisto'ren Odol deuna orma eta zoztor artean ixurita.— Otoi egiten egozan monja bigunak il.— Jaunartzeko ziran gudariak odoletan, gorputzak zatituta.— Meza esaten iñarduen abadeak, berun ilkorrak jota" (1937-IV-1).

Gernikaren bonbartzatzeak (IV-26) jota utzi zituen: egun horretan *Eguna* ez zen irten astelehena zelako, baina hurrengo egunean ere ez. Asteazkenean, lehen orrialdean aipamenik ere ez; azken orrialdean zetorren bonbaketaren berri (informazio oso gutxi beraz)⁵.

4. "Muga'tik aruntzako euskaldunak, zer deriskote?" (izenb.) / "Laburdi'ko Euskalduna euzkel-izparringia fasista baten eskubetan dago" (azpiizenb.). Hona hemen artikularen azken zatia: "Izan ere, "Euskalduna" ango euzkel izparringi bakarra faxista purruratu baten eskuetan dago, beren aldun eskuiko Ibarnegaray aurka daukagu, apaiz erri txikitako askok sermoi ikargarriak eta eleizkizun izugarriak "Españiako persecusiona" bukatu dedin eta abar...nola ez dira ba gu oker gabiltzan ustean egongo?" (A. Mendizabal "Txaranbel" idazlaria, Eg. 5, 1-6, 4. or.). "Ez du beñere guganako berdingetasunik azaltzen. Euskaldun edo ez euskaldun, guziak berdin, gorriak batetik eta txuriak bestetik, bakarrik. Euzkadi eta bertako agintari katolikoak ezta aitatu ere; España bakarrik. Euzkadi besteetatik berdingea dala azaltzea "separatismoa" bai-litzake Lespee eta Ibarnegararentzat" (Eg. 12, 1-14)

5. Hona hemen IV-28an azken orrian zekarrena: "Paxisten egazkiñak" (goi-izenb.). "Gernika, euzkotarren uri mai-tea, / birrindu nai izan dabe zero" (izenb. nagusia). "Aritza zutik gelditu da, ordea, ondamenti orretan / Zutikago euzkotarren gogoa, baña" (azpi-izenb.). Ondoren, testuaren parte gehiena, lehen hiru zatia:

Gorrotola! Bizkaya'ko beste uri eder bat ezereztuta ta birrinduta utzi dauskue paxistak. Atzokoan Tabira zan goizean goiz unetxo baten zuzituta laga ebena; arañegun, ostera, Gernika, euzkotarren uri kutun, leku maitagarriena triskauta idoro dogu. / Ez kalerik, ez etxerik, osorik laga dabe egazkin madarikatuetao bomba edentsuak. Bideak apurtuta dagoz, eta keia, autsa eta negarra baño ez dogu aurkitu, ondamenti ondorean, Gernika'ra arin baño ariñago jo dogu-nean. / Euzkadi'ganako gorrotoa egundo ez dabe ezkutatu ez gorde, eta oraingoa euren indar osoaz agertu izan dauskue gorroto ori. / Eriotzea euzko-erri osoaz jaubetuteko alegiñetan ari dira, baña euzko-erria lena da orain ere, ez da aldatu, eta egingo ere ez.

Lau orduko suagaketa / Etxe gitxi gelditu dira ikutu barik Gernika'n. Alde geienetan jausi ziran bonbak, eta etxe ta eleiza, ibiltoki eta gexoetxeak zuzituta gelditu dira geyenak. / Udaletxea zana goi ta be, lorrñia ta autsa baño ez dogu orain, eta leku itzaleakoa izango dabe gernikar askok berau. / Eleizak ere su ta gar agiri dira keia ta odola besterik ez dabela. / Lertzeko bomba pillak jaurtitzan ekin eutsen egazkiñak, gero, su-emalleak ere ugari bota zituen, eta uria ezereztuta laga eben zero. Alde batetik bestera Gernika illotz mututua dirudi. / Biaramonean ere, ketan egon dira etxe asko, osoro erre arte, zeatz birrindu arte gizonen gaiztakeria agertzen bai'llegozan.

Gudoñetatik urruti: Arratsaldeko lau ta erdiak aldean agertu zan lenengo egazkiña Gernika gain, eta kanpaiak jo zituen. Orduan, jendeak gordelekuetarantz egin eban. / Eg(azk)in bakar orrek bomba batzuk bota ondoren alde egin eban. Baña ba-ebazan lagunak be bere atzean. / Berealakoan, beste bat agertu zan, eta urrengo beste bat, eta geyago ta geyago banaka. Suagaketa eta eizeko egazkiñok ogei bat bildu ziran eta jo ta ke, bonbak bomba botaten asi ziran. / Gernika osoan, alde guztietan bomba eta suagak besterik eziran izan iru lau orduan. Bazter guztiak sutan eta jausten asi ziran berealakoan. / Etxe eta eleizak garretan jai ziran. Jon Deuna eleizaren goirik ezan agiri, su ta ke artean / Uriaren erdi alde osoa eta inguruak sutzar egiñik laga zituen. / Illuntzera arte, ordea, egazkiñak eurenari ekin eutsen. Lau ordu luzetan botatako suagak zenbat izan diran ez dogu jakin, baña uri ezereztuak argi asko agertuko dau munduaren aurre gudoñetatik urruti dagon uri edegi bateri egindako eraso zitala."

Lehen orrialdean, hauxe: "Tinko, euzkotarrak, tinko // Paxisten gurariak ezereztu ta atzeratu-teko guztiok gertu! Eta laukitxoan sloganak: "Aldi larri oneitan Aberriari bere burua eskintzen eztautsana ezta abertzale zindua". Gudalekuetako joaldi eta atzeko aldeetako bonbaketez gain, honen guztionen ondorioak: janari banatze, haur eta emakumeen atzerriratze, egazki-nen premia eta gogo bizia.

Durangoko bonbaketaren ondoren, Molaren azken erasoak direla-eta, egoera gero eta larriagoa da eta propaganda gehitzen da. Iritzi artikuluetan ere egoeraren larritasuna nabaritzen da (Uzturre: "Il edo bizi", E. 106, V-6); Mendi Lauta: "Euzkadi euzkotarrentzat"). Propaganda gehitzeak egoeraren larriagotzea erakusten du. Goiburuak, sloganak agertzen dira goiko aldean. Propaganda horretan S. Aranaren esaerak erabiltzen dira maiz⁶. Izenburu handien bidez ere gudariak eta jendea berotu nahi da. Azken egunetan informazio eta propaganda nahastea ageri da⁷. Beraz, faxisten basatikeriak erakutsi nahi dira munduaren aurrean eta norberaren sendotasuna erakutsi.

Editorial eta gainerako iritzi sail eta artikuluei dagokienez, editoriak gisako sail batzuk badi-ra, adibidez "Egunon", noizean behin agertzen dena, M. Arruza "Arrugain"ek izenpetua. "Jel-Azija" sail ideologikoa da, "Mendi-gain" delako batek izenpetua (honek "Kirolak" sailean ere izenpetzen zuen), gipuzkeraz eta ondo idatzita. Egilea beharbada E. Aranzadi "Kizkitza" zen. Kizkitza" otsailean hilda gero ez zen gehiago agertu. Sail hau *Euzkadin* ere bazen, erderaz.

Idazle batzuk guztiz aipagarri dira, gehiago idazten zutelako ere bai, besteak beste, adib. I. Eizmendi "Basarri", J. Insausti "Uzturre", T. Agirre "Barrenso" edo M. Arruza "Arrugain" aipatua. Aipagarria da A. Anabitarte "Atarrene" ere, "Kokotxak xaltzan" saila izenpetzen zuena. Basarri"ren saila "Nere bordatxotik bildutako sortatxoak" zen. J. Insausti "Uzturre"ren "Kaleko marmarra" lehen orrialdean agertu ohi zen eta bertan gai asko erabili ohi ditu: kalean ikusitakoak, idazleei buruz, nekazaritzaz e.a....Gipuzkerazko idazle bizi eta indartsu honengan nabaria da estilo trinko eta eliptikoa, Lizardi-eta gogorarazten dituen, adibidez aditzaren elipsian. ("Tolosako etxe bat. Bertan ama bat negarrez. / Zer gerta oneri? / Abertzalea zuan seme bat. Eta abertzalea zalako bizia kendu zioten"). Baita alokutiboaren (hitanoa, zuka edo datibo etikoa) erabilera estilistikoa ere ("zearo aldatzen dizu gudak errien biziera").

Beste sail batzuk ere *Egunaren* pentsabidearen aldetik garrantzitsuak dira, noizbehinka-koak izan arren. Adib. "Uzkurtza gayak", nekazarien aldekoak, gizarte-arazo eta emakumea-ren zereginei dagozkienak, "Euzko-giroa" (Mendi Lauta), e.a. Nekazarien aldeko sail batzuk

6. "Euzkadi"ren seme ona ixateko beraren alde bixitza emoteko gerturik egon biar da" (S. Arana). "Benetako abertzaleak estu aldietan ezagutzen dira, beroen ta zindoan orduantxe egoten diralako". "Arrotz bat txarra da Euzkadiarentzat. Baña askozaz txarrago da bera ezaguturik abertzalea eztan euzkotarra". "Euzkadiren lapurren eta bere maitalien artean ezin daie bakerik. Gudari: Bearkun batek lotuten zaitu: paxistakera ondatuteak. Bere ondamentia zure azkatasuna da, zure seme ta anaien bakea, eta zure amaren zoriona" (Eg. 135, VI-9). "Nagi ta alper dabilana etoya da.- Igeska dabilan bakotxa areyua.- Pusilla erabilteko indarrik eztabenak gogortze lanetan atxurra erabili daike.- Bilbao, makur barik, zutik iraun biar da, azkatasunari begira, azkatasun-gogo ori ixango dalako gurendearen bide ta oñari" (Eg. 138, VI-12)

7. "Gora biotzak, euzkotarrak, eta aurrera! // Gurasuak daukazanak, gurasuakaitik.- Semiak daukazanak, seme-txu maitiakaitik. Ezkongei dagoanak, euren emazte gaiakaitik. Guztiok oldozkun bategaz, geure maitasun guztiak bere babesplan artuten dauzan Euzkadi"ren azkatasunarren, areriu zapaldutera" (IV-30). Azken egunetan: "Joaldi gordiñen atetan gagoz. Arerioak bere indar guztiak batuta Bilbao artu nai dabe, baina Bilbao ez da jausiko, euzkotarrak orrelaxe nai dabelako". Bilbao, zutik! (Eg. 138).

"Paxisten basatikeriak Gorlizko gaxotegia aukeratu eban atzo ankerkerietako, arañegun Derio'ko kanposantuz egin eban antzera. Aberriaren bizitzak, gure izateak, gure siniste ta elburuen zorionak eskari bat egin eta bearkun bategaz lotuten gaitue: Tinko euzkotarrak! Irmo!" (Eg. 139, VI-13).

agertzen dira noizbehinka, adib. "Nekazaritza" saila (sail honetako artikulua batek izenburu haxe dakar: "lurra landutzen duanarentzat biar da") edo "Euzko lugiñen alde" ("Txirri" k sinatua). Honetan *Egunak Argiaren* sentiberatasuna jasotzen duela dirudi, baina gerra egoterran holako sloganek eragin handiagoa zuten.

Arazo sozialak: esaterako, kapitalismoaren kritika dotrina katolikoaren barruan (agintaritza larregiagatik), edo Mendi Lautaren "Gizarte Auzi buruz" saila, non hezkuntza gaiak ("Ikastolak ugaritu bear ditugu", 37-IV-21, 91. z.) agertzen diren. Baita beste gizarte arazo batzuk ere ("Sendi alogera", E. 86, 37-IV-11; id. 129, "Montxor"-ek izenp.). Edo "Lugin lanak" saila ("Txirri"). "Euzko emakume maitia" eta "Euzko-emakumiaren gixarte-lanak" sailetan M. Gabilondo Mungiakoak, "Maite" izenpetzen zuenak idazten zuen maiz. Honen arabera emakumearen zereginak hauek ziren: "Euzkadi euzkaldundu", "euzko ekandubak bizitu", "semiaren adimena aberastu" eta "Otoi eta lan Jaungoikua eta Aberrija aldeztu diñardugun gudarijonek aldeztu".

Ugari agertzen dira ondoko sailak ere: "Naskaldija", berriak eta iritziak (aspaldiko saila, *Euzkadi* eta *Bizkaitarratik* zetorrena); "Xelataka", zeresanak, batzuetan "A-BI" k izenpetua (Andoni Arozena lasartearra, zeinek irri-marrak ere egiten baitzituen) edo "Irrist" delako batek, beste batzuetan izenpetu gabea. Beste sail batzuek, franko aldiz edo noizbehinka bederen agertzen zirenak, interes berezia izan zezaketen: "Guda-idazkiak" edo "Guda idazki irikia" (gutunak eta erantzunak egiten zizkieten elkarri idazleek); "Euskadi'ko bastarrak", argazkiekin. "Euzkeraren aldeko lanak" hizkuntza eta literaturari gordetako atalean aipagarri dira.

Beraz idazle mordoak baten lanak argitaratu ziren *Egunan*, ezinez, ohi bezala (eta batzuek bat baino gehiago erabiltzen zuten), Zubikarainen zerrendan batzuk falta direla.

Izenburu, argazki eta irri-marrek garrantzia hartzen dute *Egunan*, Díaz Nocik ohartarazi duenez, gerrak bultzatuta. Elkarren jarraiko izenburuek, aurreizenburuek, azpiizenburuak. Argazkiek ere, adib. azken orrialdeko "argazki-ingoskija" (orrialde osoa aurregi eta paisaien argazkiak betarik, azpian azalpentxoak dakartela). Garrantzitsuak dira euskal margolari ospetsuen laukiak ere, adib. Uzelai edo Arruerenak. Eta irri-marrak, benetako editorial laburrak ("Abeletxe" k, "A-BI" k eta bestek eginak). *Eguna*-k beraz informazio, editorialgintza, iritzi artikulua eta propaganda lana egin zuen, aipatu baliabide teknikoekin: benetako egunerokoa zen, guda garai hartako erdarazko egunkariekin parekagarria.

3. EGUNAKO EUSKARA ETA LITERATURLANAK

Kazetari estilo eta mintzairan saiatu beharra izan zuten idazlariek, oso gazteak izan arren, esaldi laburrak eta zehatzak idatziz, agentzia eta egunkarietatik itzuliak, laburtuak edo moldatuak. Kirikiño eta Lauaxetaren ondotik hobeki uler daiteke haien kazeta-euskara eta, orohar, hizkuntza.

Hitz asko "garbiak" edo hitzberriak dira. Hauetariko batzuk ia beti erabiltzen dituzte, adib. *joaldi*, *guda-oin*, *guda-atze* ... Hala ere, batzuetan oso garbizaleak dira: *gentza* (bake), *suaga* (kañoi), *txaide*, *itxaspeko*... (noizean behin orrialde zolan hiztegitxoek bidez azalduz). Baina beste batzuetan ez: *bakia*, *kañoi*, *kale*, *submarino*... Izenburuetan ez dira hain garbizalea, beharbada zer esaten zen ulertaraztea komeni zelako (*lentejak*, *arroza*; "bloqueo" *dala*-*k*oa, "krisis" *dalakoa* e.a. maiz irakur daitezke).

Euskalkiari dagokionez, idazlari gehienek bizkaieraz idazten zuten eta, adibidez, izenburuak euskalki honetan datoz (Erkiagak egiten omen zituen). Baina iritzi sailetan behintzat libre uzten zen, gipuzkerazko idazle mordoak zegoen eta gainera *Euzkadi* egunerokoaren tradizioa zen bizkaieraz nahiz gipuzkeraz idaztea. Nahiz honek batasunik eza zekarren, are aipatu eus-

kalki horien barruan. Toki izenetan ere ez dago beti batasuna: Doitxerri / Alemani; Ingalanda / Ingalaterra; Pantze / France. Ezta hitz-formetan: mairu / moro, errizaliak / errepublikarrak e.a.

Egunan literaturlan asko agertzen dira, batez ere egunkaria hiru orrirekin ateratzen denean: olerkiak, bertsoak, ipuinak eta are eleberri bat. Eta honek literatura kazetetara eramateko gogoia erakusten du (Orixek eta Lauaxetak *Euzkadin* egin bezala, adib.). Olerkariaren garaian eta giroan bizi ziren eta *Egunan* olerkiak argitaratu zituzten, adibidez Muniategi'tar Sabinekin "Lauaxetaren erara-", "Arrugain", "Andoni" (Andoni Alberdi motrikuarra), "Erletxue", Kerexeta'tar J., Andonegi'tar Kuireka, "Goxabaran", "Otartxo", "Erriko", "Otarre" (Bermeotik) eta beste goitizendun batzuek.

Bertsoei dagokienez, asko eguneko gertaera eta kontuei buruzkoak ziren, egun ere diren bezala (eta hau agian euskal kazetaritzaren zerbait berezkoa da). "Basarri"ren mordoxka bat argitara zen (adib. "Eguna bertsoan", VII-9). Baita beste batzuenak ere: Anabitarte "Atarrene", eta olerkigile bezala aipaturiko "Erriko", "Otartxo", "Uterre"renak (Bermeotik). Kasu gehienetan hitz lauz idazten duten idazle berak dira, ezizen beraz. Gai arruntenak gerra, Aberri Eguna, hildakoen gomuta...dira, baina baita natura, emakumea, euskal kirola edo euskal herriak.

Ipuin batzuek ere argia ikusten dute, gerra girokoak: "Guda-ipuiñak" ("Erletxue"). Bingen Batiz "Barbin" munitibartar karmeldar gaztearen ipuin batek ("Eskerrik asko, Ama"), I. mundugerrateko soldadu euskaldun baten adorea kontatzen du, Karmengo kutun edo eskapularioak lagundu ziola-eta. Gipuzkera on batean -lapurtera kutsu pixka batekin-idatzia dago. Egilea, sermoilari ospetsua izandakoa, atzerrian luzaro egon ondoren 1960. inguruan karmeldarren Nagusi izendatu zuten.

Eleberri bat ere atera zen *feuilleton* moduan (zatika edo emanaldika, eta horretarako teknika batzuekin): "Loretxo" ("Eleberri-Edestia"), Tx. Arruti "Mendi Lauta"rena. *Feuilleton* eran eleberriak argitaratzea ez zen arraroa (P. Lhanderen *Yolanda* gipuzkeraz atera zuten *Argian*, eta, jakina denez, euskal eleberri asko lehenik *feuilleton* gisa agertu ziren, Tx. Agirrerrenak adibidez).

Karlista etxe oneko alaba Loretxoren eta Yon abertzalearen arteko maitasun istoria da, Gipuzkoako kostako uri batean (Zarautz, dirudienez) kokatua gerra aurrean eta gerrateko lehen hilabeteetan. Yon gudari egiten da eta gerralekuetan dabil, eta bata besteari uriko eta gerralekuetako kontuak gutun bidez kontatzen dizkiote, adibidez faxistak urian sartuta eginiko ankerkeriak edo Legutiano hartzeko saio odoltsua. Eleberria otsailaren 14an hasi zen argitaratzen eta 11 kapitulu agertu ziren, etenda geldituz. Tesi eleberri honek euskal gudariaren moral ideala defendatzen du, gertaerek lekukotasun balioa izanik, baita giro, toki, pertsonaia batzuen oihartzuna agertzen dela (Zarautz eta Lizardi, azken hau egilearen adiskidea; olerkariaren anaia gudaria Legutianoko ateetan ikurriña eta arma eskutan e.a.).

1937an "Barrensororen" *Uztaro* eleberria argitara zen, urte hasieran eta liburu modura Hegoaldean agertu zen euskarazko eleberri bakarra, dirudienez. "Uztaro. Gure erriaren bizierari buruz edesti jakingarria" dio 2. argit., 1950. Eta Uzturreren arabera, "Uztaro bake-eresia da. Euzko errietako bake aldietako oiturak argi ta Barrensorok berak bakarrik trebetasun ta yayotasunez agertuten dauzkuz" (*Eguna*, III-6). Gerra girotik urrun, baina. Geroztik idatzitako ez gutxik, ordea, gerrateko gertaerak kontatzen dituzte (S. Altuberen *Laztantzoko eta Betargi*, Salaberriaren *Neronek tirako nizkin*, Auspoan argitaratutako batzuek e.a.). Gerlak, orohar, zer idatzi ugari sortu zien euskal idazleei. Altxatuak nagusitu ziren lurraldean, adib. P. Fermin Irigaray "Larreko" idazleak orain dela gutxi argitara den *Gerla urte-gezur urte* (Pamiela, 1993) idatzi zuen, Iruñean eta 1936-1940an kokatua.

Literaturlanak argitaratzeaz gain, *Egunak* euskal literatura eta idazleen inguruko ospakizunen berri eman zuen. Adibidez, "Paxistak ildako euskal idazlien eleizkizunak" (Aitzol, Markiegi, M. Lekuona, Onaindia, "Aberri" delakoa e.a.). Edo euskal idazleen batzarren edo sariketen berri. Baita hildako idazleak gogoratuz, Kirikiño eta batez ere Lizardi: martxoaren 14an "Lizardi zana gogoan dogu gaur" orrialde osoa agertzen da Erkiaga "Endaitz", "Mendi Lautu" eta "Barrensor"ren artikulua banarekin.

Egunan literaturlanak agertzea ez da gauza harrigarria: literaturaren aldeko giroa zegoen Errepublikara garaian eta loraldi bat egon zen ("Euskaltzaleak" taldea eta Olerti Eguna, Bertsolarien Eguna, antzertia eta Euskal Antzerti Eguna, sariketak (Kirikiño saria), ipuinak, euskal poesiari buruzko eztabaidak...Hau guztiau eguneroko eta aldizkarietan jasota agertzen da: adibidez *Euzkadin* (Orixe eta Lauaxetaren eraginez), *Argian*, non Lizardik idatzi izan baitzuen (+ 1932) eta batez ere Donostiako *El Día*n, euskal literaturari eta garai hartan nagusi zen olerkiari lehen toki gordetzen ziona, "Aitzol"en eraginez (+1936).

BIBLIOGRAFIA

Eguna. Kultura eta Turismo Saila, Eusko Jaurlaritza, Gasteiz, 1990. Faksimila.

AGIRREAZKUENAGA, J., "Prentsa euskaraz: 1936.eko Gudaldian eta Lehen Euskal Gobernuaren garaian", Jakin, 50. zbk., 1989.– "Eguna: euskeraren egunerokotzea komunikabideetan", aip. faksimilearen hitzaur., 11-30. Id. Jakin, 1990.

ZUBIKARAI, A., "Euskal egunkaria eta euskara", aip. *Egunaren berrargitalpenean*.– Id. *Hedabideetako euskara*, Gorka J. Palazio (ed.), 15-26.

ERKIAGA, E., "Gomutak iluntzen diranean", id. *Egunaren berrarg*.

UZZURRE, "Antziñako Eguna dala-ta", id. *Egunaren berrarg*.

DÍAZ NOCI, J., "Euskarazko prentsa XX. mendean (1919-1937). Euskal kazetaritzaren sorrera eta garapena". Doktorego Tesia, UPV-EHU, 1992, 504-513. or.– *Euskal prentsaren sorrera eta garapena*, Eusko Ikaskuntza, 1995, 255-266.